

Gure produktua aurrera ateratzeko gastu batzuk behar dira. Alde batetik, kostu aldakorrak, hala nola aerografenoa, oso material erresistentea da, baina, aldi berean, arina. Hau, erabiltzen dugun teknologia babesten du. Espraia beste kostu aldakor bat da, produktuaren parte delako; gure bezeroak defendatzeko beharrezkoa ikusten dugu. Horretaz gain, erabiltzen dugun lokalizatzailea ere kostu aldakor bat da. Lokalizatzaile horri esker, nahi duzun pertsona une bakoitzean non zauden ikusteko gai izan daiteke. Azkenik, gure produktua apaintzeko erabiltzen ditugun kolorezko ehunak. Hori guztia alda daiteke produzitzen dugun guztiaren arabera, gauzak ondo badoaz, idealena aipatutako produktuak erabiltzea izango litzateke, baina gauzak okerrera badoaz, zenbait gauza alda ditzakegu, adibidez produktua merkeagoa jartzea.

Bestalde, kostu finkoak daude, lan egingo dugun alokairu-lokala kostu finkoa da; izan ere, kostu finkoetan, berdin da zenbat ekoizten dugun, diru-kopuru bera ordaindu beharko dugu.

Garrantzitsua da edozein egoeratarako prest egotea. Guk nahi baino produktu gutxiago salduz gero, material merkeagoak bilatuko genituzke. Adibidez, aerografenoa erabili beharrean, beste produktu merkeago bat erabiliko genuke, eta, horregatik, produktua merkatuan jartzean, merkeagoa izango litzateke.

Bestalde, gure produktua pertsona gehiagorengana eta desberdinengana iristeko, hainbat gauza egitea pentsatu dugu. Gure helburu nagusietako bat web orri oso on bat sortzea izango litzateke. Web orri berritzaile bat egin nahi dugu, gure produktuaren abantailak bideoen bidez azalduz, paragrafo asko jarri ordez, bideoa dibertigarriagoa iruditzen zaigu. Gure produktua oso ondo badoa, munduko hainbat lekutan denda fisikoak jartzea pentsatu dugu, jende gehiagok gure produktua ezagutzeko. Aukera hori zailago ikusten dugu egin ahal izateko. Horrez gain, oso gogoan dugu gure antzeko produktuak egiten dituzten beste enpresa batzuekin produktu bat egiteko aukera, edo produktu konbinatu bat edo antzeko bat ateratzea dugu helburu.

Gure ustez, enpresa batek funtzionatzen du bezeroa nolabait bere produktua erosteko lotzen duenean, bezereoa produktura engantxatzerakoan eta ez dago hainbeste lotuta prezio altuak edo baxuak diren.